

9. AMEZTIA (80 min)

Itzuleran, Europako amezirik handietako baten zati bat beharkatuko dugu.



Ameztiaren barruan hesiren bat edo beste gainditu beharko dugu. Baliteke txirrin-dulariak ikustea, zidorrak bat egiten duelako BTT bideekin.



10. IBILBIDEAREN AMAIERA (100 min)

Ibilbide zirkular honetan ordubete eta 40 minutu eman ondoren abialekura itzuliko gara: Urturi



IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Ibilbidea: Zirkularra

Luzera: 6.900 m

Zailtasuna: Txikia

Iraupena, gutxi gorabehera: 100 min

Igo beharreko malda: 185 m



NOLA HELDU

Ibilbidea golf zelaiko aparkalekutik hasten da, Urturi herriaren iparraldean.



CASA DEL PARQUE - PARKETXEA

01129 Korres - ARABA

Tfno. (34) 945 41 05 02

parqueizki@parques.alava.net



Legie Gordinilua • Depósito Legal: VI-470/13.

IZKIKO PARKE NATURALA



Urmaelen

IBILBIDE ZIRKULARRA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

1. URTURIKO GOLF ZELAIA (0 min)

Ibilbidea Urturiko golf zelaiko aparkalekuaren sarreran hasten da. Ezkerreko seinaleari, Marizurieta zidorra adierazten digunari, jarraituko diogu.



2. EL ESPINAL URMAELA (8 min)

Hasieratik metro gutxira, eta zati batez golf zelaiak inguratutik, El Espinal izeneko urmaela aurkituko dugu.

PARAJE NATURAL HONETAN KONTU ETA ERRESPECTU HANDIZ JOKATU BEHAR DUGU BERTAN DAUDEN HEGAZTIEKIN



Pistaren amaieraraino jarraituko dugu, eta bidegurutzean ezkerredera egingo dugu. Hortik aurrera zuzen ibiliko gara, labore finken ondotik, kanadar pasabide batera iritsi arte.

3. BIDEGURUTZEA (20 min)

Bide zuzenaren gunee jakin batean zurezko seinale bat ikusiko dugu. Zuzen jarraituko dugu, Marizurieta zidorra utziz eta loturatik Arrieros zidorrerantz jarraituz.



4. AMEZTIA (*Quercus pyrenaica*) (35 min)

Bide zuzenaren amaierara iristen garenean eta kanadar pasabidea ikusten dugunean, eskuineko pista hartu beharko dugu. Zirkulu hori batez adierazita dago. Ameztiaren hasieran gaude.



Pistatik jarraituz gero, abereentzako itxitura bat ikusiko dugu (atea dauka). Hori koloreko puntuetan zehar jarraituko dugu. Laster, argazkiko paisaia ikusiko dugu, hasieratik 35 minutura dagoena, gutxi gorabehera.



5. ARRIEROS BIDEGURUTZEA (45 min)

Zelai bat zeharkatu eta zurezko ate batetik sartu ondoren, beste bidegurutze bat dago, pinudi batetik hurbil. Hemen ere eskuinera jo behar dugu zurezko seinaleari kasu eginez: Quintanarantz.



6. LAS ROZAS URMAELA (55 min)

Pinudia zeharkatu ondoren, urmael eder bat ikusiko dugu, Las Rozas izeneko. Urmael hori labore finkei ureztapena eskaintzeko sortu zen, El Espinal deritzona bezalaxe, baina, urteak joan urteak etorri, basatu egin da. Ondo behatzen badugu eta zortea badaukagu, ekosistema honi lotutako zenbait hegazti miretsi ahalko ditugu.



Las Rozas urmaela atzean utziko dugu eta metalezko hesi bat ikusiko dugu, Parke Naturala mugatzen duena. Hura zeharkatuko dugu (eta itxita utziko dugu), eta pistatik aurrera jarraituko dugu. Toki honetan ondoko argazkiko bazterrak ikusiko ditugu.



7. EL PASEO BIDEGURUTZEA (75 min)

Quintana herrira iritsi baino lehen, bidegurutze bat aurkituko dugu. Adi egon! Eskuinera joko dugu, El Paseo zidorraren jarraibideak kontuan hartuz, eta beste hesi bat igaroko dugu (ez ahaztu ixtea).



8. ZUREZKO ZUBIA (80 min)

El Paseo zidorrean ibiltzen hasi eta berehala ameztia ikusiko dugu berriro, pagoz (*Fagus sylvatica*) eta gorostiz (*Ilex aquifolium*) ziprztindua. Laster zurezko zubi txiki bat zeharkatuko dugu, lehor egon ohi den erreka baten gainetik.

